

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Euskal dantzak asteburu osoan zehar

Urnieta Dantzan eta Euskal Festakin Urnietan;
Haurren Euskal jaialdia Andoainan / 8

Pagola eta Alvarez, garaile argiak

Udal hauteskundeetan Urnietako EAJ-PNVk gehiengo osoari eutsi zion, eta Andoaingo EH Bilduk demokrazia garaiko boto kopuru gehien jaso zuen / 2-5

111 AKADEMIA: SARIA 2018

EKAINAREN 6AN, OSTEGUNAREKIN,
19:00-ETAN HASIKO DA
111 AKADEMIAREN SARIA 2018
IRABAZLEARI EMATEKO EKITALDIA,
AMASAN, HIKA TXAKOLINDEGIAN.



2018. URTEKO 111 AKADEMIAREN SARIA HARKAITZ CANO

idazleak hartuko du
FAKIRRAREN AHOTSA eleberriagatik

- 19:00 Bisita laburra Hika txakolindegia-
ren upategietara.
- 19:15 Olatz Prat, Josune Marin eta Joxan
Goikoetxea musikarien emanaldia.
- 19:20 Saritutako obraren irakurketa.
- 19:25 Saria ematea.
- 19:30 Saritutako obraren irakurketa.
- 19:35 Olatz Prat, Josune Marin eta Joxan
Goikoetxea.
- 19:40 Amaiera, Roberto Ruiz sukaldariak
prestaturiko zizka-mizkak dastatuz.

Antolatzaile:

- 111 AKADEMIA,
MANUEL
LARRAMENDI
KULTUR
BAZKUNEOA



Babesle:



Aniztasunetik agintzeko prest

Garaipen argia eskuratu zuen EH Bildu alderdiak gainerako alderdi politikoeekin elkarriketak abiatuko dituela iragarri du. Andoni Alvarez Lete alkategaiak gobernagarritasuna lortzeko herriak duen "aniztasuna" kontutan hartuko duela dio



EH Bilduk agerraldia egin zuen Bilgunean, esker ona adierazteko eta balorazioa egiteko. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Bilgunean egin zuten agerraldia, astearte eguerdian, eta bertan Ana Carrere egungo alkatea eta Andoni Alvarez Lete alkategaia izan ziren. Haiekin batera, zinegotzi akta eskuratuko duten

Esti Mujika, Jon Zulueta, Gara-zi Usandizaga, Xabier Fondon eta Julian Lopez.

Andoni Alvarezrek eskertza adierazi zuen, igandean jasotako babesagatik. Gobernagarritasuna bermatzeko lanean hasi

dela iragarri du, herriak erakusten duen aniztasuna kontutan hartuz: "Andoain herri anitza da. Eta hiru sentsibilitate politiko nagusiak beti lehiatu dira parez pare. Oraingoan aldea nabarmenagoa izan da. Anizta-

sun hori kontutan izan behar da gobernatzeko".

"Badugu gobernu programa aurrerakoi bat osatzeko ardura eta gaitasuna: Pertsonen beharretan zentratuta, ezberdintasun sozialak murrizteko pentsatuta dagoena. Aurrerakoia, euskaltzalea, feminista eta ekologista izango dena eta herriak behar dituen inbertsioak aurrera eramateko konpromisoa duena", gaineratu zuen.

Esti Mujikak hauteskundearen balorazioa egin zuen: "1979tik lehen indarrak atera duen emaitzarik onena da. "Herritarrek EHBilduren kudeaketa eredua babestu dute: eredu partehartzailea, gardena, hurbila eta arduratsua: egin ditugun zuzenketa eta inbertsioak egokiak izan direla baieztatu dute. Andoaindarrek EH Bilduk proposatu duen hautagaitza plurala eta programa erakargarria hautatu dute".

Garaipen argiaren gakoak

Andoni Alvarez Lete buru den EH Bilduk garaipen argia lortu zuen Andoainen, azken hiru agintaldietako emaitza onena lortuz. 2823 boto lortu zituen (7 zinegotzi), eta bigarren izan zen PSE-EE alderdiari alde handia ateraz (1940 boto, 5 zinegotzi). EAJ-PNV alderdia hirugarren izan da (1680 boto, 4 zinegotzi). Elkarrekin Podemos alderdia izan da laugarren (606 boto, zinegotzi 1) eta PP bosgarren (204 boto).

Gauzak horrela, nagusiki gako hauetan oinarritzen da EH Bilduren garaipena:

Hautagai bozkatuena

Demokrazia garaiko boto kopuru handiena lortu du Andoingo EH Bilduk. Duela 40 urteko marka hautsi du Alvarezrek:

- 2823 boto EH Bildu (2019).
- 2727 boto EAJ-PNV (1979).
- 2677 boto EAJ/EA (2003).
- 2634 boto EAJ-PNV (1983).
- 2500 boto EH Bildu (2011).
- 2362 boto PSE-EE (2007).
- 2112 boto EH Bildu (2015).

- Inoizko emaitza onenak lortu ditu, 2823 botorekin (2112 boto 2015ean, eta 2500 boto 2011n).
- Aldea handitu die aurkariei. PSE-EEri 883 boto atera dizkio (2015ean 225 botoko aldea zen), eta EAJ-PNVri 1143 boto (2015ean 362 botoko aldea zen).
- EH Bilduren botoak abstentziotik, abertzaletasunetik eta ezkerretik eratorri direla ondoriozta daiteke. 2015eko emaitzetatik hona, eta Aldundirako botoen alderaketan ere, EAJ-PNV eta Elkarrekin Podemos botoetan jaitsi dira. Gauzak horrela, demokrazia garaiko hautagai bozkatuena bilakatu da Andoni Alvarez Lete.

Egibarren eta Lainezen adierazpenak Euskadi Irratian

Euskadi irratian, astearte goizean, Maite Artolak bi ordezkari politikoak elkarriketatu zituen. Adierazpenek ikusmin eta arreta handia piztu zuten Andoainen:

Maidar Lainez

Igande gauean bertan EH Bildu zoriondu eta PSE-EE alternatiba zela adierazi zuen, Aiurri. Astearte goizean, Euskadi Irratiari eskainitako adierazpenetan, aldaketarako bere burua aurkeztu zuen: "Jendeak ikusi du alderdi sozialista oso indartsu dagoela Andoainen, eta jendeak EH Bilduren alternatiba gisa ikusten

gaituela. Egia da gu bigarren indarra garela, baina baita ere jendeak aldaketaren beharra ikusten du eta gu ikusten gaituzte aldaketa horren lidergoa izateko. Gure programa izango da abiapuntua eta handik aurrera denekin hitz egiten hasiko gara, eta ikusten ea zer nolako aukerak dauden".

Joseba Egibar

Gipuzkoako jeltzaleen buruzagiak Lainezen aurretik hitz egin zuen. Politika orokorreko gakoan hitz egin zuela ondoriozta daiteke: "Hauteskundeak galdu dituenak

bere burua oposizioan ikusten du, hori berezkoa da. Pasaia eta Andoain bezala, udalerri gehiago daude Bizkaiko ezker aldean. Alderdi sozialistak tentazioa eduki dezake beste alderdi batzuekin EAJ-PNV alboan uzteko. EH Bilduk ere Durangon EAJ-PNV alboan uzteko tentazioa izan dezake. Ikusiko da. Duela lau urte zioten Andoingoak gainerako erabakiak hartzeko txispa piztu zuela. Gorka

"ETXE BARRUAN EGINGO DUGU GOGOETA, BADITUGU PUNTU DELIKATU BATZUK"
JOSEBA EGIBAR

Urtaran Gasteizen ez zen PSE-EEren botoekin aurrera atera, beste batzuen botoekin atera zen alkate. Andoainen denok dakigu zer gertatu zen, eta etorkizunean ikusiko dugu zer gertatzen den beste udalerri batzutan. Bai Bizkaian, eta baita Gipuzkoan ere. Andoainen edo Pasaian ez dago ezertxo ere hitz eginda. Ez PSE-EErekin eta ezta inorekin ere. Guk etxe barruan egingo dugu gogoeta, baditugu puntu delikatu batzuk eta tratatu beharko ditugu". Adierazpen horiek nazio mailako albiste bilakatu ziren.

Alkatetza nori emateko erabakia ez da, behintzat, aste honetan hartuko.



PSE-EE



AIURRI

Andoaingo Udal hauteskundearen analisia, datu bidez

Agintaldi berriko buruzagiak



Andoni Alvarez Lete (EH Bildu).



Maider Lainez (PSE-EE).




Marijose Izagirre (EAJ-PNV).



Tere Santana (Podemos).

Udal Hauteskundeak 2019 – Andoaingo

Eserlekuak




Bost alderdi aurkeztu ziren. PP da ordezkariarik gabe geratu den alderdia.

Abertzaletasunak ordezkaritza bat gehiago lortu du

Alderdi abertzaleetako ordezkariak hamarretik hamaika izatera igaro dira. Abertzale ez direnen aldetik, zazpitik seira jaitzi dira.

Udal Hauteskundeak 2019 – Andoaingo

Boto kopurua




EH Bilduk gainerako alderdiekiko tarte zabala ireki du.

Garaipen argia Andoaingo EH Bilduk lortu duena

Grafikoa argigarria da. Azken bi agintaldietan EH Bildu, PSE-EE eta EAJ-PNVren arteko tarte askoz txikiagoa zen. Aldea nabarmen handitu da.

Udal Hauteskundeak 2019 vs Batzar Nagusietarako hauteskundeak 2019 – Andoaingo

Boto kopurua




Udalerrri mailako EAJ-PNV eta Podemos alderdientzat bereziki datu txarrak dira.

Andoni Alvarez Leteren gaua

EAJ-PNV eta Elkarrekin Podemos alderdien kasuan, Batzar Nagusietarako boto gehiago lortu dituzte. Datua adierazgarria da.

Udal Hauteskundeak 2019 vs 2015 – Andoaingo

Boto kopurua



Boto kopuru beretsuetan daude EAJ-PNV eta PSE-EE. Igo dena EH Bildu izan da.

Ana Carrere eta bere lantaldearen lanari saria

Azken bi agintaldien alderaketan, EH Bilduk igoera nabarmena lortu du. Lau urteotako kudeaketa saritu dute, hein handi batean.

Andoaingo alderdi politikoen balorazioak, igande gauean

EH BILDU

“Balorazioa oso oso ona da, inoiz ateratako emaitza onenen aurrean gaudelako. 2823 boto dira, bigarren eta hirugarren alderdiei oso alde handia ateraz. Kanpaina zehar genituen sentsazio onak gainditu egin ditugu. Emaitza honekin azken urteotako kudeaketari nota ona jarri diote, bereziki Ana Carrere gidatutako lantaldeari. Esan genuen hautagaitza herritarra eta zabala osatu nahi genuela, EH Bilduk bere oinarria zabalduta. Herritarrek hori begi onez ikusi dute.

Baikor gara. Andoaingo gobernagarritasuna askoren lanarekin egin beharko da, baina herritarrek EH Bildu erdigunean nahi dutela argi utzi dute. Andoaingo herriak EH Bildu alkatetzan egotea erabaki du. Ardura hori hartuta, Udal gobernu osatu eta gobernu programa osatzen ahalginduko gara”.

PSE-EE

“EH Bildu zoriondu nahi dugu, irabazle argia delako. Andoniri eta bere lantaldeari, beraz, zorionak. Eskerrak, bestalde, babesaren eman diguten 1940 herrikideei.

Apirilaren 28ko datu berberak lortu ditugu eta, beraz, emaitzak onak dira. Pozik gaude Andoaingo PSE-EE indartsu dagoelako. Nabarmen geratu da Andoaingo bigarren alderdia garelako. Oso argi dago, eta Andoaingo EH Bilduren alternatiba gisa ikusten gaitu”.

EAJ-PNV

“Andoaingo guztiak zoriondu nahi ditugu, gaurko eguna normaltasunez igaro baita. Zoriondu nahi dugu gaurko garaile, Andoni Alvarez. Hautagai bozkatuena izan delako zorionak.

Gure emaitzak ez dira onak, ez dira genituen aurreikuspenak asebetetzen eta bihurtik aurrera Andoaingo alde lanean jarraituko dugu.

Andoaingo erabakia errespetatzen dugu, nahiz eta gure aurreikuspenak ez bete. Zinegotzi kopuruari eusten diogu, eta astelehenetik aurrera lanari ekingo diogu”.

ELKARREKIN PODEMOS

“Bistan da gure balorazioak ez duela ona izan behar, gure emaitza oso kaskarra delako. EH Bilduri zorionak, eta gure konfiantza jarri dutenei eskerri asko”.



Ospakizuna egiteko arrazoirik ez zitzaien falta Urnietako jeltzailei, igande gauean. AIURRI

Aurkaririk ez dute Urnietan

EAJ-PNVk gehiengo osoari eutsiko dio, 1500 botoekin eta 7 zinegotzirekin. EH Bilduk 838 boto jaso zituen, eta 4 zinegotzi eskuratu. PSE-EE berriro 2 zinegotzirekin geratuko da, 483 herritarren babesa jaso eta gero

Jon Ander Ubeda URNIETA

"EAJ-PNVk irabazi ditu hauteskundeak, honakoa noiz irakurtzen duzun berdin dio", Vocento taldean idazten duen Braulio Gomez soziologoaren analisiaren lehen parrafoa Urnietatik ida-

tzita dagoela dirudi. Urnietatik eta Bizkaiko edozein herritik. EAJ-PNV eta bereziki Mikel Pagola Coca-colaren formula magikoaren jabe dira. Arrakas-ta ziurtatzen dien errezeta euren eskuetan dago.

Maiatzaren 26ko Udal hauteskundeak egin ez balira, ez litza-teke ezer gertatuko. Arinkeria da hori adieraztea, baina datuak eskuetan, emaitzak errepikatu egin direla dirudi. Portzentaia botoak ia-ia berdinak baitira.

2015eko gehiengo osoa errepikatzea ez da erraza inorentzat, eta EAJ-PNVk Urnietan lorpen handia erdietsi du. Gauza on asko ikusten dizkiote urnietarrek, horrelako babes zabala eskaintzeko.

Ikusmina, hala ere, handia zen. EH Bilduk hautes-zerrendan aldaketa handia egin baitzuen. Azken lau urtekoa zaila izan da eurentzat, politikarekin zerikusirik ez duten aldagaiak tarteko, eta Artola-Izagirre tandemari erreleboa emateko Ainara de Miguel aurkeztu zuten. Saiatu da kanpainan zehar parte hartzea sustatzen, baina azkenean herritarrek botoaren bidez hitz egin dute.

PSE-EE alderdiak betiko bidetik darrai, Herme Gonzalez eta Consuelo Frutos ibilbide luzeko ordezkariak buru direla. Botoetan igo badira ere, orde-

karitza apala izaten jarraituko dute.

2015ean Aulki Zuriak hautes-zerrenda aurkeztu zenean, boto ugari jaso zituzten. Boto protesta delakoa ondotxo bereganatu zuten. Oraingoan, ordea, ez da horrelakorik eman eta askoz emaitza apalagoa lortu dute.

Aipamen berezia merezi du Elkarrekin Podemos alderdiak. Azken bi hauteskundeetan Batzar Nagusietan ehunka boto pilatu dituzte. Eta Espainiako Kongresurako 2015eko abenduko eta 2016ko ekaineko hauteskundeetan Urnietan garaile izan ziren. Udal hauteskundeetara, ordea, ez dute hautes-zerrenda aurkeztu. Soziologikoki, Urnietan ezkerreko joera politiko hori badago. Urnietan aurkeztu ez izanak mesede egin die hiru alderdi nagusiei. Hots, jeltzaileei, sozialistei eta ezker abertzaleari.

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ORAIN
GIPUZKOA**




**Udal hauteskundeak
aiurri.eus webgunean**

Atal berezia:

aiurri.eus/bereziak/2019-udal-hauteskundeak


www.aiurri.eus

Urnietako Udal hauteskundearen analisia, datu bidez




EAJ-PNVren nagusitasuna agerikoa da.

Duela lau urteko egoera berean daude hiru alderdiak
Gehiengo osoa ziurtatzen edo baztertzen zuen hamairugarren zinegotzia kolokan izan bazen ere, azkenean EAJ-PNVk bereganatu zuen.




Elkarrekin Podemos alderdiaren emaitza, Batzar Nagusietan.

Alderdi abertzaleen igoera Udal hauteskundeetan
Badago herritar kopuru bat Udal hauteskundeetan Pagolari botoa ematen diona, eta Batzar Nagusietara Elkarrekin Podemoseara.



Hiru alderdira mugatzen ari da ordezkartza Urnietan.


EAJ-PNVren nagusitasuna adierazten duen grafikoa
Garaipena eztaba daezina da. Urnietan dagoeneko hiru alderdien artean metatzen ari da ordezkartza osoa.



Aulki Zuriak izan ezin, gainerako alderdiek botoetan gorunzko joera izan dute.


Parte hartze handiagoa, alderdien arteko aldeari eusteko
Zenbait herritar parte hartzearen igoerak erreakzioa suposa dezake, ohikoan alderdi baten aurka. Urnietan onura denentzat izan da.

Batzar Nagusietako eta Europar Batasuneko emaitzak



Laugarren indarra da Elkarrekin Podemos, Batzar Nagusietako hauteskundeetan.

Elkarrekin Podemos alderdiaren agerpena
Urnietan Podemos alderdiak izan lezake babesa, baina ez dira Udal hauteskundeetara aurkeztu. Batzar Nagusietako datua argigarria da.



Aukera zabala dago Europako hauteskundeetan.

Ciudadanos, Pacma eta Vox alderdien agerpena
Babes apala badute ere, adierazgarria da emaitza. Eta beste behin ere agerian geratzen da Elkarrekin Podemos alderdiak duen babesa.

Mikel Pagolaren balorazioa

"Lehenengo eta behin, mila esker 1500 herritarrei EAJren proiektuarekin sinesten jarraitzen duzuelako, eta horri esker datorren lau urtetan Urnietan egin beharreko gauza askori amaiera emateaz gain, beste berri askori ere ekiteko aukera eman diguzuelako.

1500 boto hauekin alderdiak 7 zinegotzi edukiko lituzke, EH-Bilduk 4 eta PSE-EEK 2, orain arte geunden bezala. Momentuz goiz samar da hitz egiteko, baina gure asmoa bakarrik gobernatzeko izango litzateke. Hori bai, herrian garrantzitsuak diren proiektu estrategikoetan ahalik eta bateratasun handiena lortu behar dugu, ahalik eta alderdi gehienak ados jarri behar ditugu. Baina horrek ez du esan nahi guztiak adostasunik lortu behar ditugunik; argi dauzkagu gure ideiak eta proiektuak, eta argi herritarrek ere beren konfidantza eman digutela, eta printzipio horiek aurrera ateratzen saiatuko gara. Gurekin lan egin nahi dutenek, hor izango gaituzte".

EH Bilduren batzar irekia ostegunean

"838 gara, eta sare bat osatzea da gure asmoa. Herriko 838 ahotsen 4 bozeramaile izango gara. Lau urte ditugu aurretik lanerako, eta parte hartzea ardatz, herritarren herri bat dugu helburu. Hastera goaz, zatoz gurekin!". Urnietako EH Bilduk bilera irekia deitu du ostegun honetarako. Idiazabal kalean duten egoitzan hauteskunde balorazioa egingo dute, 19:00tan hasita.



Goiburuko Bekaiztegi baserrian elkartu ziren Burdinako kideak. AIURRI

Burdinaren urteko batzarra Bekaiztegi baserrian

Andoaingo elkarteak egindakoa aztertu eta etorkizuneko erronkei begira jartzeko batzarra egin zuen

Xabier Lasa ANDOAIN

Burdina taldeak urteko batzarra ospatu zuen Bekaiztegi baserrian, joan zen ostiralean. Ekitaldia gogoeta egiteko baliatu zuten. 19 urteko ibilbideari begira jarri ziren, zer eta nola egin den baloratzeko. Era berean, etorkizuna hizpide izan zuten.

Ander Otaño Burdinako kideak adierazi duenez, “Burdinak hasierako espirituari eutsi dio gaurdaino: auzolana oinarri hartuta, han-hemen baztertuta eta sasiak hartuta zeuden ondare historikoak berreskuratzea eta gizartearentzat argitan jartzea, alegia. Aitzurra eskuetan hartuta Andoaingo zenbait boluntariok, 2000 urtean, bertako elementu historikoak –karobiak, errota, garbitokiak, burdinolak– txukuntzeari ekin zioten. Orduz geroztik, ibilbide luze eta oparoa egin du elkarteak”. Boluntario horiek, gehi bidean batu zaizkienak, nahiz eta arkeologian, historian, etnografian eta beste zenbait giza jakintzatan adituak ez izan, trebatzen joan dira. Eta aldi berean, Andoaingo ikuspegi gainditu eta Tolosaldeko eta Nafarroako makina bat udalerrietarako jauzia eman dute. Burdinak gero eta deia gehiago

jasotzen ditu herri horietako udal eta gizarte elkarteetatik, elkarlanean jarduteko proposatuz. Geroz eta zabalduagoa baita ondare historikoa berreskuratze gogo. “Pozgarria da, Burdinarengan konfiantza dagoela adierazten duelako, eta guri lanean jarraitzeko ilusioa handitzen digulako”.

Manu Izagirre eta Alfredo Morazari eskertza

Burdinako kideek azken urtetan elkartera batu diren bi adituei eskertza adierazi nahi izan zieten. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ondare historikoaren sailean teknikari gisa urtetan jardun duen Manu Izagirre izan zen horietako bat. “Aldunditik erretiroa hartu zuenetik, urtetan pilatutako ezagutza eta eskarmentua Burdinari eskaini dizkio, eta miresgarria da erakutsi izan duen jarrera hori”. Aranzadi elkarteak Alfredo Moraza arkeologoa da Burdinako kideek izendatu zuten bigarren pertsona. “azken urtetan burutzen ari garen hainbat proiektuetako zuzendari teknikoa da, eta horrek gure eginkizuna teknikoki eta metodologikoki sendotu egin du”.

**METATU DUEN
ESPERIENTZIAREKIN
BURDINA TALDEA
BESTE EREMUETARA
ZABALDU DA**

**ALBERTO MORAZA
ARKEOLOGOAREN ETA
IZAGIRRE ALDUNDIKO
TEKNIKARI OHIAREN
LANA ESKERTU DUTE**



Astearte arratsaldean elkartasunezko agerraldia deitu zuten Zumea plazan. AIURRI

Elkartasuna adierazteko argazkia Zumea plazan

Apirilean plaza horretan ireki zuten apustu etxearen aurkako jarrera azaltzeko, hainbat herritarrek kartelak ipini zituzten. Negozioaren jabeak salaketa jarri du haietako hirurengan, eta hauek apustu etxeen aurkako dinamikarekin erantzun diote

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Apirilean, Zumea plazako apustu etxearen irekierarekin batera, negozio horren aurrean hainbat kartel agertu ziren. Gutxi iraun zuten zutik, apustu etxeko langile batek gauean bertan kendu zituelako. Aste batzuk igarota, Andoaingo hiru herrikidek epailearen aurrean deklaratzeko agindu bana jaso zuten. Horren aurrean, astearte arratsaldean asanblada irekia deitu zuten. Salaketa jaso duen herrikideetako batek egoera zein den azaldu zuen: “Gaiarekin kezka genuen. Gazteen artean ludopatía, familia hausturak... arazo handiak sortzen ari dira. Real Sociedad taldekoek galde-

keta egin zuten bazkideen artean, apustu etxeen inguruko publizitatea jarri edo ez erabakitze. EITBk dagoeneko iragarri du ez dituela apustu etxeen iragarriak eskainiko. Andoaingen kanpaina txikia egitea pentsatu genuen, kartel batzuk jarritz. Helburua gaiarekiko sentsibilizazioa zen. Gure sorpresarako zitazioa jaso genuen, epaitegira joateko, eta zitazio horretan hiru lagun identifikatuta gaude. Guri inongo momentuan ez digu ez Ertzaintzak ezta inongo polizia identifikatu. Apustu etxeen kamarak erabili dituzte, eta ezbaian dago kamera horien erabilera. Saiatu gara apustu etxeko jabearekin gaia bidera-

tzen, baina berak ez du nahi izan. Zalaparta aukeratu du, eta guk zalapartarekin erantzungo diogu. Kartel batzuk jartzea ez da delitua. Gure duintasuna defendatzera joango gara. Karteletan ez zegoen ez mehatxurik ezta irainik ere”.

Azalpenak amaituta, eta “Apustu etxeak kanpora” afitxak eskuetan zituztela, bertaratu ziren argazkia atera zuten.

Hitzaldia ekainaren 10ean

Ludopatía eta adikzioen inguruan, hitzaldia antolatu dute. “Ekintza Bibe” taldearen eskutik, gaiari buruzko argibideak eskainiko dituzte. Urigainen izan-go da, 18:30ean hasita.



Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema.
Andoaingo urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da.
Urrietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoaingo
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoaingo), Isabel Salaberria (Urrietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikiak: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

ERROITZ EUSKAL MEDIATZA	ALIAUTUAK INSTROR	TOKIKOM
BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:		
ANDOAINGO UDALA	Urrietan udala	
DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:		
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO	Gipuzkoako Foru Aldundia Hizkuntza Berlindatzen Zuzendaritza	
ZIURTAGIRIA: 2017 Bikain	BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.	

Zanpatuz txiki eguna, inguruko mendietan

Mendizale gazte eta helduak maiatzaren 26an Besabitik abiatu ziren, Mullisko eta Onddi aldera. Zanpatuz Ttiki egun euritsua izan zen, hamaiketako goxoarekin amaitu zena. Zanpatuz mendi elkarteak hitzaldia antolatu du, ostegun honetarako



Euriak irteera baldintzatu bazuen ere, animosoenak ez ziren kikildu. ZANPATUZ



Mullisko eta Onddi zeharkaldia egin eta gero, partaideek hamaiketako egin zuten Xoxokan. ZANPATUZ

Karl Egloff hizlari Lekaion

Afrikan, Errusian eta Amerika osoan zeharkaldi luzeak egin dituen Egloff kirolaria Urnietako Lekaion hizlari arituko da, Zanpatuz mendi elkarteak gonbidatuta. Arratsaldeko 19:00tan hasiko da hitzordua. Kirolaria egun hauetan Euskal Herrian da, eta Zegama-Aizkorri mendi lasterketan irteteko da. Inguru haiek ezagutzen ari da egun hauetan.



EGLOF



UDALA

Lurrazpitik pasako dute

Etenetako igogailua egiteak aldaketa erantsiak ekarriko ditu. Inguru hartan dagoen argindarrerako dorrea eta transformagailua kendu egingo dituztela iragarri du Urnietako Udalak. Aurrerantzean lurrazpitik igaroko da argindarra. Gauza bera egin nahi dute etorkizunean, herrigunetik tren geltokiraino doazen dorre guztiekin.



UDALA

Oinezkoentzat egokitzen lanak

Txoritagaingo aparkalekuak zerbitzua eskaintzen die bertako auto gidariei. Egun hauetan, betsalde, San Juan kaletik harantz doan espaloia luzatu eta zabaltu egin dute. Bertatik igarotzen diren pertsonak helduleku bat izan dezaten, baranda ipini dute.



andoaINDARRA
euskaraz



Amaia Vaquero eta Asun Fernandez, zutik. Eserita, Leire Ibarbia eta Lurdes Soto. AIURRI

Dantza egiteko prest daude

Egapeko helduen dantza eskolak hamar urte bete ditu, eta ekainaren 1ean Urnieta Dantzan ikuskizunean parte hartuko dute. Gazte Jaien baitan, herria dantzan jarriko dute. Asteburua iristeko gogoz daude

Amaia Senperena URNIETA

Helduen dantza taldeko kideetakoak dira Asun Fernandez, Leire Ibarbia, Lurdes Soto eta Amaia Vaquero. Sanmioletako soka-dantza saioan hasita, helduen taldea martxan jartzea erabaki zuten.

Zer dela eta helduen taldea osatzeko erabakia?

Asun: Duela hamar urte, soka dantza saioaren ondoren, talde moduan dantzatzeko aukerari heldu genion. Lehenago fandango eta arin-arin piska bat egin da geunden, baina soka-dantza hura eta gero hasi ginen helduen taldea antolatzen.

20-25 pertsonako taldea gara, eta ostegunero elkartzen gara. Hamar urte beteko ditugu eta oso gustura etortzen gara entseatzera.

Nola hasi zen dantzarekiko duzuen zaletasuna?

Leire: Txikitatik ibili izan naiz dantzan. Urnietara bizitzera etorri eta haurrak dantzara hasi zirela ikusirik ni neu ere animatu nintzen. Bost urte daramatzat, eta oso gustura etortzen naiz entseatzera. Gure artean ere oso giro polita sortu da.

Amaia: Taldean sartu den azkenetarikoa naiz eta nire iloba zaharrenarengatik izan da. Bera dantzatzeko ikusi ostean nire semea ere dantzan hastera animatu zen, eta ondoren ama batek helduen taldean parte hartzera animatu ninduen. Dantzan ibili gabea nintzen eta beti

URNIETA DANTZAN, SOKA-DANTZAN ETA OLENTZEROREN ETORRERAN SAIOAK ESKAINTZEN DITUZTE

izan nuen kuriositate hori. Oso gustura nago Edu Muruamendi arazirakaslearekin, eta baita dugun taldearekin ere.

Asun: Hasieran eskolak hartzen hasi eta denbora pixka batera jendaurrean dantzatzera animatu ginen. Urtean hiru aldiz ateratzen gara kalera; Urnieta Dantzan egunean, Soka-dantza egunean eta Olentzero eta Mari Domingiren etorrera egunean.

Maila ezberdinetako jendea zaudete taldean, beraz

Amaia: Adin guztietara zabal dutako talde irekia da eta helburuen artean ikasi eta ondo pasatzea dugu. Bakoitzak ahal duena egiten du, eta tarteka afariak ere egiten ditugu.

Leire: Edu Muruamendi arazek laguntza handia ematen digu, eta gure artean ere elkar laguntzen gara.

Asun: Ikaragarritzko zortea daukagu horrelako irakasle bat edukitzearekin.

Leire: Bai, eta nik uste berarentzat ere gurekin dituen klaseak deskonektatzeko momentu ere badirela. Gurekin ere dantza egiten du eta ondo pasatzen duela esango nuke nik. Urtero, gainera, gauza ezberdinak sartzen saiatzen da eta asko animatzen gaitu.

Dantza ezberdinen osaketan parte hartzen al duzue?

Lurdes: Eduk dantzen inguruko iritzia eskatzen digu, eta dantzatu nahi ditugun abestiak ekartzen dizkigu.

Amaia: Koreografiari forma berak ematen dio, baina gero bakoitzak bere ekarpena egiteko aukera dauka.

Lourdes: Pausoren bat oso zaila egiten bazaigu, aldatu du.

Leire: Azkar kexatzen gara, baina normalean denborarekin pausu guztiak ateratzen dira.

Euskal Dantzaz gain, kutsu garaikide hori baduzue...

Asun: Lantzen ditugun koreografiak Eduren kutsua dute.

Leire: Guztiak ez dira euskal dantzetatik ateratako pausuak. Egiten duguna soilik euskal dantza klasikoa izango balitz, ziurrenik ez nintzen dantza taldeko kide izango.

Edu Muruamendi arazen garrantzia, ondorioz, garrantzia handikoa da.

Leire: Bai, gainera berak asko animatzen gaitu. Beragatik ez balitz, ez genituen urteko hiru ikuskizun horiek egingo.

Beste herrietan bada zuen antzeko talderik?

Lurdes: Badira baina ez gure dantza estiloarekin. Mutrikun, adibidez, euskal dantzara begira zeuden. Baina 50. urteurrenean kutsu garaikideko dantza saioa sortu zuten.

Asun: Urnietarrok, zorionez, gure ereserkia eta koreografia propioa dugu.

Ingurukoek eta etxekoek zer adierazten dizute?

Leire: Oso ondo egiten dugula. Umeek ere ondo dantzatzeko dugula diote, eta hori entzutea oso pozgarria da.

Zuen arteko harremana nolakoa da?

Amaia: Oso ona. Talden sartu aurretik kide asko asko bistaz soilik ezagutzen nituen. Dantza gure arteko harremanak estutzeko lagungarria izan da.

Leire: Disfrutatzen etortzen gara, eta hori oso garrantzitsua da. Gainera, kide bat baino gehiago beste herrietatik hurbiltzen da gugana.

Gustatuko al litzaizueke Urnietatik kanpo ikuskizunen batean parte hartzea?

Amaia: Egia esan, kanpoan ez genuke hemen baino urduritasun gehiago izango izango.

Asun: Egun pasa bat egiteko aitzakia paregabea izango litza-teke.

Asteburuan, beraz, Urnieta dantzan ikuskizunean ikusiko zaituztegu.

Zer esango zeniekete urnietarrei?

Asun: Hurbil daitezela Urnieta Dantzan egunera, oso ondo pasako baitugu.

Lurdes: Batzuetan gogo gabe etor gaitezke, baina musika entzun eta buruan duzun guztia ahazten da. Jarduera fisikoa egin eta oso ondo pasatzen dugu, eta hori da guretzat garrantzitsua.

Amaia: Dantzak aukera pila eskaintzen digu. Batzuetan gainera dantzaren ostean zerbait hartzera joaten gara. Gogotsu dagoenari animatzeko esango nioke. Gainera, maila ezberdinetako jendea dago. Eta hori ere azpimarragarria da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

GAZTE FESTAK URNIETAN

OSTIRALA 31

16:30 Altxorraren bila, Plazido Muxika plazan hasita.

18:00 Jolasak San Juan plazan hasita, Poxta Zaharrek antolatuta.

18:00 "Ametsen tenploa" antzezlanak Etxeberri plazan.

19:00 Sardina-poteoa eta musika, Etxeberri plazatik.

18:00/19:00 Gazte funky Saroben.

19:30 Herriko buruhandi eta erraldioen kalejira, Plazido Muxika plazatik hasita.

20:30 Txupinazoa udaletxeko balkoitik. Ondoren, Egape dantza taldea.

21:00 Bosko Anitz txarangaren kalejira.

21:30 "Hiri tribuak" gazte afaria Egape ikastolan.

24:00 Sakatu elektro-txarangaren kalejira.

LARUNBATA 1

09:30-10:00 Argazki Digital Rallya, izen-ematea Lekaion.

10:00 Diana Txanbolin txistulari bandarekin.

11:00 Urnieta Dantzan. Dantza saioak herrian zehar.

11:00 Dantzari txikiak San Juan plazan.

12:30 Urnieta Dantzan.: Emanaldi nagusia Plazido Muxika plazan.

12:00 Poteoa Poxta Zaharrek antolatuta.

14:30 Herri bazkaria Idiazabal kalean. Jolasak arratsaldean.

16:00 Karabina tiraketa 9-14 urtekoentzat.

17:00 Zumbaton eta Urnieta Warrior proba plazan.

18:00 Elektro-txaranga Idiazabal kalean.

19:00 Plaza dantzak Zaldundegi plazan.

23:30 DJ Idiazabal kalez kale, Poxta Zahar taldekoekin.

23:30 Los Garcia taldearen kontzertua, Los Rodriguezi tributua San Juan plazan.

IGANDEA 2

10:00 Diana Txanbolin txistulari bandarekin.



"Turisteando" kale antzerkia, igande arratsaldean San Juan plazan.

11:00-13:30 Puzgarriak eta jolasak Egape ikastolako jolastoki estalian.

11:00-13:30 Oka Jolas Erraldoia Egapen.

12:30 Txanbolinen kontzertu-dantza emanaldia, Egapeko dantzariarekin.

16:00-17:00 Puzgarriak eta jolasak Egape ikastolako jolastoki estalian.

17:00 Herriko erraldoi eta buruhandien kalejira, San Juan plazatik abiatuta.

18:00-20:00 Dantzaldia Denda Berri jubilatuen elkartean.

18:30 Kale antzerkia: "Turisteando" San Juan plazan.

19:30 DJ eta haur tailerrak San Juan plazan.

21:00 Jaien amaiera.

URNIETAKO XXVII.
ARGAZKI DIGITAL RALLYA
EKAINAREN 1EAN



GAZTE
FESTAK
2019
URNIETA

Maiatzak 31, Ekainak 1-2.



www.urnieta.eus

Urnieta Udalak

@UrnietaUdala

Urnieta.App

Urnieta
udala

MAIATZAK 31
OSTIRALA
EKAINAK 1
LARUNBATA
EKAINAK 2
IGANDEA

EZ beti da EZ!
Jaietan
gozatu errespetuz

Urnieta
udala





Ainhoa Jauregi eta Xuban Ezeiza urnietarrak. AIURRI

Zegama-Aizkorri igande honetan

Urteko mendi lasterketa ezagunena da, eta bertan izango dira Andoaingo eta Urnietako hainbat kirolari. Urnietarren artean, Legarretak edizio guztietan parte hartu du. Andoaindarraren artean, Erkizia kilometro bertikalaren irteeran izango da

Andoni Urbistondo URNIETA

Urnietako lau korrikalari irten-go dira igandeko Zegama-Aizkorriko proba ezagunean. Dagoeneko XVIII. edizioa iritsi da, eta nazioarteko puntako probatakoa da. Urnietarrak urte osoan zehar lan polita egiten ari dira Euskal Herri osoko mendi lasterketetan.

Mikel Legarreta, 36 urte

Ekitaldi guztiak korritu dituen korrikalari bakarretakoa da. Azken 2-3 urteetan halako buruko nekea sumatu zuela onartu zuen iaz, Zegama-Aizkorriren ateratzeko egin behar den prestakuntza fisikoki eta mentalki exigentea delako. Aurten, baina, bai buruz eta baita fisikoki ere oso ondo iritsiko dela dio: "Entrenamendu saio luze batzuk egin ditut, eta oso ondo ikusi dut nire burua, ziur aski azken

urteetako punturik onenean iritsiko naiz". Zergatiaz galdetuta, arrazoi hau eman du: "Travesera Integral proba prestatzen ari naiz, Ibon Zabala lagunarekin batera egiteko, ekainaren 15ean. Asturiasen egiten da, Picos de Europa mendigunean. Oso gogorra da, 74 kilometro eta 6.500 metroko desnibel positiboa, eta hori prestatzeko Zegama-Aizkorri ondo etorri zaidala uste dut". Hamazortzigarren aldia, dagoeneko, Legarretak badaki non ibiliko den, proba duintasunez bukatzen

"AIZKORRIRA ONDO IRISTEN DENAK BADAHI ZEGAMARA ONDO IRITSIKO DELA"

MIKEL LEGARRETA URNIETARRA

badu: "Betiko legez, bost orduko langa erreferentzia gisa hartuz, pixka bat hobe, pixka bat okerrago, hortxe ibili beharko nuke". Gutxi ezagutzen dute bidea Legarretak bezain ondo, eta txoko bat aukeratzekotan, Aizkorriko gaina esan du: "Hara ondo iristen denak, badaki Zegamara ondo iritsiko dela. Mugarri garrantzitsua da. Hara izorratuta iristen bazara, ordea, jai duzu".

Unai Ezeiza, 31 urte

Lehiaketa faltak ematen duen zalantzarekin abiatuko da Unai

"AZKEN ASTEETAN ESTUTUA EMAN DIOT GORPUTZARI, ERRITMOA HARTZEKO"

UNAI EZEIZA URNIETARRA

Ezeiza. Pasa den urtean lesioek ez zioten Zegama-Aizkorriren parte hartzen utzi, eta orain, bi urte jarraikortasunik eduki gabe egin ondoren, irteerara aurkez daiteke. "Ez dakit zein maila eman go dudana. Erreferentziaren bat izango banu, zerbait esan ahalko nuke, baina ezin. Goizuetako proba korritu nuen orain aste batzuk, eta ez nintzen batere gustura ibili. Erritmo falta nabaritu nuen asko. Azken bi asteetan halako estutu bat eman diot gorputzari, ea gutxienez erritmo pixka bat hartzen dudana igandeari begira". Egoera horretan, Ezeizak garbi du alferrikakoa dela helburu jakin bat finkatzea: "Etortzen dena etorriko da. Nahiko nuke beste urte batez parte hartzea ziurtatuko lidakeen postua lortzea -lehen 100 sailkatuek lortzen dute-, baina jakitun naiz urtez urte denborak hobetzen doazela korrikalariak, eta ez dela erraza izango".

Ainhoa Jauregi, 40 urte

Zegama hiru aldiz egin du. Lide lehen alaba jaio ondoren egin zuen bitan, eta lehenengoa Lide jaio aurretik. Ezagutzen du, beraz, proba, baina ibilbidea egin zuen pasa den astean, eta konturatu, "ahaztu zaidala dagoeneko, ez bainintzen ezertaz gogoratzen". Maratoiak ez ditu gustuko Ainhoak, berarentzat distantzia luzeegia baita. "Maratoi erdiko distantzia handitzen joan naiz, 30-35 kilometroko saioak egiten, akaso aurten edukiko dudana aukera ez dudalako gehiago edukiko. Aurten goizuetako proba askotan errepikatzeke gai izango naizenik ere ez dut uste. Puntu onean nago, lasai, forma onean nagoelako, urduritasunik gabe. Marka ona egin nahi dut, eta eguna ondo joaten bada, posible dela uste dut".

5.45 eta 5.50 dira bere markak, eta hobetzeko moduan dagoela uste du: "5.40ren bueltan ibil naitekeela uste dut". Prestakuntza gogorra da, baina sufritzen baduzu, hobe ez egitea. Nik ibil-

"EGUNA ONDO BADOA, MARKA ONA EGITEA POSIBLE DELA USTE DUT"

AINHOA JAUREGI URNIETARRA

bide bat egin dut, eta Zegama etorri da, eta ez alderantziz. Zegama korritzeko prestakuntzak halako exigentzia bat badakar, berarekin". Zegaman disfrutatzea posible omen: "Bai noski. Ni ja ametsetan ari naiz, Otzaurtetik nola pasa, Sancti Spiritun jendea agurtzeko gogoz...".

Eguraldiaz bi hitz: "Txarrak laguntzen nau. Lokatza eta ibilbide tekniko nahiago. Ez nau obsesionatzen, dena den. Eguraldi txarrak arropa asko eraman behar izatea eragiten du, eta lauzpabost ordutan euria eta hotza bada, buruak ere bere lana egiten du, ze demontre egiten ari ote naizen mendi maratoni bat korritzen, giro horrekin. Demagun euri pixka bat, baina epel eta eguzkia ere bai, tarteka". Ez bukatzeak buruko minik sortzen ote dio, Ainhoari? "Ez, batere ez, ez bainoa marka bat egiteko asmoarekin. Nire osasunak arduratzen nau, minik ez hartzea. Karrera ona edo txarra egin, nire bizitza ez da aldatuko. Azken lau lasterketak ondo atera zaizkit, hau ondo ateratzen ez bada, kito, onartu eta listo".

Jokin Lizeaga bikotea esatari lanetan ariko da. Aholkurik eman ote dio? "Ez dugu bereziki egun horri buruz hitz egin. Berak esan gabe ere badakit lasai eta indarrak gordez egin beharreko proba dela, bukaeran indartsu bazaude denbora asko irabaz dezakezulako, ondo jan eta ondo edan...". Sancti Spiritu edo Aizkorri punta, bietan zein? "Sancti Spiritu. Laguntza ematen izan naizenean han izan da, eta ni korrikalari pasa izan naizenean indarra, emozioa eta bultzada berezia sentitu izan ditut. Han egoten dira lagun, familia eta ezagunak, eta txoko hori aukeratuko nuke. Aizkorri ere polita da, baina pasa izan naizenetan ez naiz hainbeste emozionatu".

Xuban Ezeiza, 23 urte

Granadan ikasketak egin eta urtebete eskas darama Urnietan. Mendiko eskian aritu da egu-

"AIZKORRIRA ONDO IRISTEN DENAK BADAHI ZEGAMARA ONDO IRITSIKO DELA"

XUBAN EZEIZA URNIETARRA

rrean, eta mendian korrika gu-txi. Baina eskiatzen sasoi puntu ona lortu du. “Legarreta anaiak eta Ibon Zabalaekin hasi nintzen bi hilabete atzera, Adarra eta Onddi aldean. Lau bat lasterketa korritu ditut, ez gehiago. Nafarroan bizpahiru, eta pasa den astean Ereñotzun. Lasterketa xumeenak egin ditut, jende gutxiago biltzen dituztenak”. 4.57 egin zuen iaz, 4.47 2017an, eta badaki estutu beharra daukala ehun denbora onenen artean jarraitu eta 2020ko proba korritu nahi badu.

Hainbestean ikusten du bere burua. Hogeik kilometroko probatan indartsu, “baina hortik aurrera sufritu egiten dut”. Jateko eta edateko beharra ez darama ondo, ez baitu probatan jatea eta edatea gustuko. Entrenatzen ez ditu hartzen, eta ohitura falta horrek eragozpen handia eragiten dio Zegama bezalako probatan. Soluziorik ba al dauka horrek? “Mendi lasterketak erronka serio bezala hartuko banitu, agian bai, baina ez ditut lehiakortasunez ikusten, gozatzeko baizik. Helburu handiegirik jarri gabe, eta ikuspuntu horrekin, ateratzen dena aterata ere konforme geratzen naiz”.

Garaipenak lortzea beti da zaila, eta Ereñotzun irabaztetik dator Xuban: “Ezin dira bi probak alderatu... Ereñotzun ordu-bete pasako lana da! Goizuetan ere ondo ibili nintzen, baina han ere bi orduko lana izan zen. Jakitun naiz Zegaman sufritzea tokatuko zaidala, eta konbentzimendu horrekin abiatuko naiz”. Sufrituko duela jakitun, baina irteera puntuan tinko. Zergatik, bada? “Giroagatik, gertuko jende asko egoten delako animatzen, beste inon ez bezala. Xarma ematen dio horrek probari”. Sancti Spiritu edo Aizkorri? “Sancti Spiritu, familia han egoten delako. Aizkorri ere garrantzitsua da niretzat, abenduak 31 dituenean urtero joaten garelako. Baina lasterketa egunean Sancti Spiritu”. Eta eguraldiari eskaera, bukatzeko. “Hotz handirik ez, ahal bada”.

"SUFRITUKO DUT, KONBENTZIMENDU HORREKIN ABIATUKO NAIZ"

XUBAN EZEIZA URNIETARRA

Ugalde eta Erkizia maratoian eta kilometro bertikalean



Jon Ugalde mendi maratoian irtengo da. AIURRI

JON UGALDE

Zegama-Aizkorri eskarmentua pilatu duen korrikalaria da Jon Ugalde. Bosgarrengoa egingo du aurten. Horietatik, azken lauetan ez du zozketan sartu beharrik eduki. Egin kontu, aurten, hamar mila korrikalarik eman dutela izena 250 dortsak jokoan jarri dituen zozketarako. Ugaldek aurreko bi urtetan egindako denborarik hobenentzat erreserbatzen diren 125 dortsaketako bat eskuratu ahal izan du. “Bost orduren bueltan ibiltzen naiz, eta juxtu denbora horretatik beherakoentzat gordetzen dira dortsalak”. Hain zuzen, bost orduko muga psikologiko horri eustea da Ugalderen aurtenko helburua. “Ez dakit 2017ko marka pertsonala (04:51) hausteko kapaz izango naizen, baina hortik gertu ibili nahiko nuke”.

Korrika egiteari neurria hartu dion pertsona da Ugalde. “Familia daukat, hamabost hilabeteko haurra, lan-orduak... Korrika egiteak beste kirol askok baino erraztasun handiagoak ematen dizkizu, eta horrela, familiaren eguneroko martxarekin moldatzen jakitea izaten da kontua. Alde horretatik ondo nabilela esango nuke, eta ez daukat gehiagorako aspiraziorik”.

Mendi lasterketara bideratzen ditu bere zangoak Ugaldek. “Asfaltoa alde batera utzita daukat. Urtean, normalki, zortzi bat mendi lasterketetan hartzen

dut parte. 20 edo 30 kilometro artekoak dira niretzat distantziarik egokienak. Hortik aurrera, nekagarriak egiten zaizkit”.

Ugaldek lau urtetan egin dituen denborak ikusiz gero, argi dago erregulartasuna erakutsi duela beti. “Egia da hori, baina misterioa izaten da niretzat Zegama-Aizkorri, ez baitnago seguru gorputzak nola erantzungo didan. Aizkorriko mendi-katea gainditu ostean hasten dira niretzat buruhausteak. Badirudi behin gailuraz geroztik Urbiako zelaietan barrena helmugara iritsi bitartean dena errazagoa behar duela izan, baina gauzak ez dira horren logikoak. Gorputzean kalanbreak, dardarizkoak, arazo muskularrak... sortzeko beldur ibiltzen naiz”.

Luzera handiko lasterketak oso gogoko ez izanik, nola ulertzen da Zegama-Aizkorri parte hartzea? “Paraje zoragarriak zeharkatzeaz gain, baditu hainbat faktore lasterketa berezi-berezia bihurtzen dutena: ikusle kopuru harrigarria eta sortzen den giro aparta, munduko korrikalaririk onenak parte hartzea, oihartzun mediatikoa...”.

Eguraldi atsegina iragarrita dago iganderako, eta milaka ikusle espero dira ibilbidean zehar. “Familia azalduko da ziurrenik, eta badakit lagunen bat edo beste Aizkorri aldera igoko dela. Beheko zatietan zein goikoetan, pozik hartzen dira pertsona ezagunen animoak”.



Beñat Erkizia kilometro bertikalean irtengo da. AIURRI

BEÑAT ERKIZIA

Beñat Erkizia badaki zer den Zegama-Aizkorri maratoian parte hartzea. Aurten, baina, kilometro bertikalari ekingo dio. Biak ere mendi-lasterketak izan arren, ez dute zerikusirik makina bat arlotan (distantzia, intentsitatea, teknika...). “Denetik egitea gustatzen zait. Egia da lasterketa honek ezaugarri bereziak dituela eta entrenamenduak espezifiko xamarrek egitea eskatzen duela, batez ere azken asteetan. Hala egiten saiatu naiz”.

Goi mailako korrikalariei zein herrikoiei “zer moduz harrapatzen zaitu lasterketak?” galdetuz gero, kexati azaltzen dira maiz: “ez dut entrenatzeko denbora askorik eduki, belauna ez daukat behar bezala...”. Erkizia, ordea, ohikoa ez den erantzunarekin datorkigu, baikor: “Ondo helduko naizela uste dut. Aldakako arazoak izan ditut azken urteetan, bi ebakuntza tarteko. Ordutik asko zaintzen ari naiz aspektu hori, eta prebentzio lan handia egiten dut ondo egoteko”.

Euskal Herrian azken urtetan perretxikoen pare hazi diren mendiko lasterketen unibertsoan, kilometro bertikalak beren tokia egiten ari dira poliki-poliki. Modalitate horretan ez da prezisu “korrikalari” azkarra izan behar; garrantzi handiagoa hartzen du gorputzeko atal guztiak ondo sinkronizatuta eramateak. Parte hartzaileen gorputzeko posturari

erreparatuz gero, zati askotan besoek hankei laguntzen diete, pauso bakoitza emateko orduan. Intentsitate altuko lasterketa da, Beñaten iritziz: “Aldapan gora korrikalari ona izatea eskatzen du, azken hiru kilometroetan 1.000 metroko desnibel positiboa igotzen da-eta. Ez dago jaitzierarik. Erresistentzia eta indar maila egokiak izatea ezinbestekoa da. Horrez gain, norbere burua ondo ezagutzea eta sufritzen jakitea ere garrantzitsuak dira. Nire ezaugarriak horrelako lasterketa baterako aproposak direla iruditzen zait. Lasterketako nire batz besteko bihotz taupaden maiztasuna minutuko 180 ingurukoa izango da, eta hortik gora momentu batzuetan.

Aldapan gora atsedetik gabe hori mantentzeko gai izan behar dut”.

Zegama-Aizkorri KB proba maiatzaren 31n, ostiralarekin jokatuko da, arratsaldeko 16:00etan. Zegamako Renfeko trena geltokitik kilometro bat lehenago dagoen bidegurutzean irteera, eta Arriaundiko gainean helmuga. 5.200 metroko luzera du probak, eta 1.015 metroko desnibel positiboa. Beñat Erkizia uste du ikusle ugari bilduko direla bertara: “Jende asko mugitzen duen lasterketa da eta gertukoak ere joango dira. Egia esan, asko eskertzen dira jendearen animoak, eta baita inguruko laguntza ere. Giro polita egoten da”.



Leizaran Ernio Inmobiliaria 3. geratu da igoera faseko ligan. AIURRI

Igoerarako aukerarik gabe ere, denboraldi bikaina izan da

ESKUBALOIA Allurraldeko partida erabakiorran, Urola taldea partida osoan zehar nagusitu zen

Erredakzioa ANDOAIN

Senior mutilen mailako Leizaranek ezin izan zuen Urola garaitu larunbatean, eta mailaz igotzeko atarian geratu da, sekulako denboraldia egin arren. Allurraldeko irabazleak igotzeko txartela lortzen zuen, eta Urolak

eskuratu zuen, merezimenduz. Leizaran beti joan zen atzetik markagailuan, 19-25ra iritsi arte. Armailetan egundoko festa izan zen, bi taldeek makina bat jarraitzaile erakarri baitzituen. Ditzira handiko finalaren tanke- ra hartu zuen partiduak.

"Zaletuen gehiago merezi zuten"

"Ezin eta ezin ibili gara partidu osoan. Hasieratik 3 edo 4 goleko aldea eta oso zaila jarri zaigu egoera iraultzea. Partiduan zehar noizbait lortu dugu berdintzea Urola, baina berriz ere aurrea hartu digute. Ofizio handiko taldearen itxura erakutsi du gaur Urolak, eta zorindu egin behar zaio horregatik.

Denboraldi bikaina egin dugu, baina azken igoera fase honek erritmo onean iristea eskatzen zigun, eta beharbada hori ez dugu lortu nahi genukeen moduan. Izan ere, lesioa ugari jasan ditugu taldean. Nik neuk bost bat hilabetetan geldirik egon behar izan dut.

Izugarria izan da gaur armailetan ikusi dena. Bagenekien klubak asteen zehar kanpaina polita egin zuela Andoaingo zaletuak Allurraldera erakartzeko, gu animatzeko asmoz. Baina ez genuen espero horrenbestekoa. Andoainen halako girorik ez dut inoiz sumatu. Urolak ere jarraitzaile ugari ekarri ditu Andoainera. Armailetan publikoak biziki animatu gaitu, Gora Kaletxiki txarangak ere bere partea jarri du... Aparta izan da Allurralden bizi izan duguna gaur. Pena bakarra, jakina, guk ez irabazi izana izan da, eta batez ere, geure publikoari ezin eskaini izana igoeraren garaipena. Benetan merezia zeukan gaur eskaini digun berotasunagatik. Ea hurrengo denboraldian ere igoera fasera iristen garen!".



Javi Rodriguez. AIURRI

Alebin eta infantil mailako txirrindularitza



ANDOAINGO

Urnietan haur eta gazte mailako lasterketak antolatu zituen Andoaingo txirrindulari eskolak. Sari banaketa ekitaldian Mikel Iturria Euskadi Murias taldeko txirrindulariak parte hartu zuen.



ANDOAINGO

Iturzaeta memorialeko partida gehiago asteburu honetan

Mutilen final zortzirenak eta nesken ligako azken partidak dira. Larunbatean 16:30ean hasiko dira partidak. Igandean, berriz, 19:00tan hasita.

Azken partida etxean

FUTBOLA Denboraldia amaitzen ari da, eta asteburu honetan partida bakarra jokatu da Urnietan. Senior mailako nesken taldeak igoerako ligaxkako azken partida jokatu du. Larunbatean izango da, goizeko 11:30ean hasita. Urnietak igoera eta bigarren postua ziurtatua dauzka. Aloña Mendi hirugarren sailkatua jasoko du. Etxekoei txalo egiteko aukera ona.



Laida Regillaga eta Maialen Arano gimnastak. OSKARBI

Oskarbiaren emaitza bikainak Gipuzkoako Txapelketan

GIMNASIA ERRITMIKOA Allurraldeko partida erabakiorran, Urola taldea partida osoan zehar nagusitu zen

Erredakzioa ANDOAIN

Maiatzaren 19an gimnasia erritmikoko Gipuzkoako txapelketa jokatu zen Azpeitian. Andoaingo Oskarbi taldeko kirolariak izan ziren bertan, eta emaitza bikainak lortu zituzten. Maialen Arok lehen postua eskuratu zuen senior kategorian, maza modalitatean. Laida Regillagak, berriz, bigarren postua lortu zuen aro modalitatean. Sailkapen orokorrean, bigarren postua lortu zuen bikoteak.

Shua Lasa eta Haize Lasa bikoteak, batak maza eta besteak aro modalitatean, bosgarren postua lortu zuten senior kategorian. Maider Arano, bestalde, bederatzigarren geratu zen sailkapenean aro eta maza modalitatean.

Nabarmentzekoa da Eider Cea egiten ari den bakarkako lana, B mailako kadete kategorian.

Asteburu honetan Euskadiko txapelketa ospatuko da.

Ganbara saski taldea datorren denboraldiari begira lanean

Ekainaren 3an eta 5ean prestaketa saioak antolatu dituzte Allurralde kiroldegian, arratsaldeko 18:00tan hasita. Helburua argia da: 2019-2020. denboraldian

nesken eta mutilen talde berriak osatzea. Infantil mailan aritzeko, 2006 eta 2007 urteetan jaiotakoei zuzenduta dago deialdia. Kadete mailan aritzeko, berriz, 2004 eta 2005 tadeetan jaiotakoak. Saskibaloia sustatzeko lanean, Andoaingo Ganbara saski taldea ibilbide luzea osatzen ari da.



Izerdi eta oihu, algara eta dantza

ESKUBALOIA Kiroldegiko kantxa jendez lepo bete zen igande eguerdian, Urnieta KEren igoera bizitzeko; 400 lagun pasa harmailetan. UKEk azkar erabaki zuen bere garaipena, baina Legazpi eta Escolapiosen artekoan gorabehera handiak izan ziren



Zaletuek eta jokalariek garaipena eta igoera elkarrekin ospatu zuten. UKE

Andoni Urbistondo URNIETA

Goizeko 11:00tan zen hitzordua Guria jatetxearen atarian. Bafleak eta tramankulu guztiak prest zeuden, baina euriak festaren lehen zatia mugatu zuen. Jokalariak goiz egin zuten martxa kiroldegira, euforia giroarekin ez kutsatzeko, baina 11.30etarako kiroldegiko kantxa beteta zegoen dagoeneko. Batzuk gara-gardo garraioan pasa zuten denbora, besteak botilak husten. Urduritasuna atzean utzi ezin zutenek asko: "Joder, oraindik ordu erdi partida hasteko...". Urnietak 2. Nazional mailara igoetzeko ze emaitza behar zuen galdetzen zuenik ere bazen. Ekua-zio erraza zen: UKEk irabazi, eta Escolapiosek berdindu edo galdu Legazpin.

Bonboa egurrean hasi zen, 12:00ak aldera, eta ez zen geratu partida bukatu arte. Hainbat abesti, dantza, eta oihu, eta informatzaileak erotzeaz. Izan ere, Legazpi-Escolapios Zumarragan jokatu zen, eta Urretxun bizi den urnietar bat ari zen bertako emaitzaren berri ematen. Urnietako partida oso ondo bideratu zuen UKEk. Lauzpabost goleko aldea lortu zuen azkar, eta ondo mantendu zuen aldea. 15-9 zen markagailua atsedenean,

eta Zumarragan ere Legazpi eroso aurretik, 3 goleko errentarekin. 'Egina dago', eta antzeko mezuak, zaleen artean.

Atsedenean ere euria. Zigarroa, zerbeza, kontu kontari jendea. Eta konturatzerako, partida berri ere martxan. Epaileak, andoaindarrak, presa zuten, non-bait, euren zeregina ahalik eta azkarren bukatzeko. Eta etorri zen dardara. UKE-k hasiera eskasa eman zion bigarren zatiri, eta Askartza lau golera hurbildu zen. Hirura jartzeko aukera pare bat ere izan zituen, baina urnietarrek azkar berreskuratu zuten defentsako eraginkortasuna, eta sei goleko errenta lortuta, garaipena ziurtatu. Legazpiko errematea falta zen, baina Urola Garaitik berri txarrak iritsi ziren bat-batean. Legazpi lau gora zen, baina hurrena bi gora, bat gora, berdinduta, bat behera, bi behera...

Begiak Urnietan, belarriak Zumarragan

Jendea ernegatzen hasia zen, Escolapios-ek irabazten bazuen UKEk bigarren postua bakarrik lor zezakeelako. Horretarako, gainera, +6ko aldea kendu behar zion Escolapios-i azken jardunaldian. Eta 4-5 golegatik ari

zen Askartza menderatzen. Nahikoa ez. 10 minutu falta ziren epaia behin-betikoa izateko, eta Legazpi sekulako mesedea egin zion UKERI. Informatzailea sutan, berriro: berdindu du Legazpi: algara, bat aurretik, bi, hiru, lau... Zenbat falta da? 8 minutu!!! Dantza, oiha, festa...

Urnietan partidak kitto, 24-19 etxeok nagusi. Zumarragan zer gertatu zain. 3 minuturen faltan 4 gora gipuzkoarrak. Itxaron egin behar! Eta bukatu zenean... zale talde gazteenak kantxa erdira, taldearekin besarkatzera, eta herri argazkia, kiroldegira bertaratu ziren ia guztiakin. Gerokoak, Las Vegasera joaten zarenean bezala. Han gertatu eta egiten dena, han geratzen dira. UKEren igoera ospakizunaren kasuan, Oianumen, eta Oiandisk dantzalekuan!

2. NAZIONAL MAILARA IGOERA

SENIOR MAILAKO LIGAXKA

Urnietak-Askartza 24-19

SAILKAPENA

1	Munttarpe	8 puntu
2	Urnietak	8 puntu
3	Legazpi	6 puntu
4	Escolapios A	6 puntu
5	Askartza	2 puntu
6	Soraluze Bergara	0 puntu



Jesus Ibañez UKE taldeko eskubaloitzaileko zuzendaritzako kidea. UKE

"Gazteak eskubaloira erakartzeko makulu izatea nahi dugu"

30 urteko ibilbide luzearen ondoren iritsi da UKEren kirol lorpenik handiena: 2. Nazional mailara igoera. Zuzendaritzako kideak dagoeneko martxan daude, erronka berria prestatzen. "Futbola dena jaten ari da, eta herriko senior taldea herriko gazteentzat ispilu izan dadin saiatuko gara, haiengan berriro eskubaloiko grina piztu eta izena eman dezaten".

Zer moduz joan dira igoera osteko 24 orduak?

Oso pozik, dena ondo, zorian mezu asko jaso ditugu.

Erronka zaila zen, aldaketa dezente egon zirelako aurre-denboraldian.

Hogeita hamar mutil elkartu ziren senior mailan, eta bi talde egitea erabaki zen: bat Gipuzkoako lehen mailan, eta bestea bigarren mailan. Urnietakoak izan, baina Usurbilen aritutako Pablo Fierro eta Joseba Errazkin bueltatu ziren, eta Usurbildik Ander Oruna eta Unai Lejardi ekarri genituen. Halako jokalar aberastasunarekin, erronka igoetzea zen, bai edo bai.

Noiz jabetu zineten igoera fasea jokatu zenuela?

Unerik txarrena urtarrean izan zen. Gero buelta eman eta marboan garbi geratu zen fasea jokatu genuela. Igoera ligatxo irabaztea, hori bai ez genuela espero.

Ligaxka 3-0 balantzearekin hasi eta igoera lortzeko lehen aukerak, Bilbon, kale.

Partida txarra egin zuten defentsan. Lehen hiru partidatan 24-25 gol jaso zituzten,

batez-beste, eta Escolapiosen aurka 36. Liga bera oso parekatua izan da. Azkenak liderrari irabazi dio, eta emaitza bitxiak gertatu izan dira. Lautik lau irabazte ere ez da erraza. Escolapios Bizkaiko txapeladuna izan zen, Liga osoan partida bakar bat galdu gabe.

Zer suposatzen du igoerak?

Ilusio handia. Makulu izatea nahi genuke, herriko gazteak eskubaloira erakartzeko, futbola dena jaten ari delako. Gazteek futbolearen bakarrik dute begia.

Urnietak izango da herri txikiak, 2. Nazional Mailan, agian.

Beno, Bizkaian Urduliz dago, Loiu, Sopela... Gipuzkoan herri handiagoak dira denak: Arrasate, Oñati, Zarautz...

Gastua asko handituko da?

Aurrekontu osoaren %7-10 artean: epaileak, fitxak, garraioa... Autoetan egiten dugu bidaia, baina Gipuzkoatik kanpo denean, autobusean. Udalarekin hitz egingo dugu. Ez dut uste arazorik egongo denik.

Eta zein izango da kirol helburua?

Mantentzea, noski. Gonzalo Brea entrenatzaileak jarraituko duela esan digu, eta arazoa ikasten ari diren jokalariekin izango dugu. Hainbat kanpora doaz ikastera, Eneko Urru, Pablo, Joseba... Beñat ere Gasteizen bizi izan da denboraldi honetan. Ea nola osatzen ditugun hutsune horiek. Ez gara jokalar bila joango herrikan kanpora. Hori bai, norbaitek etorri nahi badu, ongi etorria izango da.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 30

ANDOAIN Kultur Astea
Patata tortila lehiaketa.
18:00, Hogar Extremeño.

URNIETA Hitzaldia
Karl Egloff kirolariaren hitzaldia, "Recordman" bezala ezaguna. Sky running kirol jardueran mundu mailako marka ugari jarri ditu. Zanpatuz elkarteak antolatutako hitzaldia.
19:00, Lekaio.

OSTIRALA 31

ANDOAIN Kultur Astea
Sardin jatea.
19:30, Hogar Extremeño.

URNIETA Gazte Festak
Ametsen tenploa antzerkia, Egapetxou taldea.
Etxeberri plaza, 18:00.

URNIETA Gazte Funky
Ikasturte amaierako erakustaldia.
18:00, Sarobe.

ANDOAIN Erakusketa
Xarma, Marga Aldabururen eskutik. Ekainaren 14ra bitarte zabalik.
Bastero, 19:00. Irekiera ekitaldia.

ANDOAIN Dantza
Sareak, Organik dantza taldearen eskutik.
Bastero, 21:30. 10 euro.

ANDOAIN Zozketa
Salkin merkatarien elkarteak ekimen betean dago, eta egun hauetarako kanpaina berria sustatzen ari da. Datorren maiatzaren 31 bitarte herrian erosketa eginez gero, erosleak Amama Klaudian, Aterpen, Danenan, Hirun, Ollokin, Ondarretan, Txalakan edo Txitibarren afaria irabazteko aukera izango du.
Maiatzaren 31 bitarte Salkin elkarteak merkatalguneetan.

LARUNBATA 1

URNIETA Lehiaketa
Argazki digital rallya, Udalaren eskutik. Oinarriak urnieta.eus webgunean.
09:30, Lekaio.



Antzezlaneko kideak saioa emateko prest daude. EGAPETXOU

URNIETA Ametsen tenploa antzezlan
Adin guztiei zuzendutako antzezlan eskainiko du Egapetxou taldeak, Egape ikastolako guraso taldeko antzerki taldeak.
Maiatzaren 31, ostirala. 18:00, Etxeberri plaza.

URNIETA Dantza
Urnieta Dantzan, Egape DTren eskutik.
Egun osoan zehar.

ANDOAIN Kultur Astea
Ogi apurren lehiaketa.
12:00, Hogar Extremeño.
Mahai jokoen finalak.
19:00, Hogar Extremeño.

IGANDEA 2

ANDOAIN Kultur Astea
Kultur astearen amaiera.
Hogar Extremeño.

ASTELEHENA 3

URNIETA Kontzertua
Lourdes Iriondo musika eskolako ikasleen emanaldia: Musika tailerra.
17:15, Sarobe.
Trikitixa, panderoa....
19:00, Sarobe.

ASTEARTEA 4

URNIETA Kontzertua
Lourdes Iriondo musika eskolako ikasleen emanaldia: Pianoa, biolina...
18:30, Sarobe.

ASTEAZKENA 5

URNIETA Kontzertua
Lourdes Iriondo musika eskolako emanaldia: Pianoa, klarineta...
18:30, Sarobe.

OSTEGUNA 6

URNIETA Kontzertua
Lourdes Iriondo musika eskolako emanaldia: Pianoa, klarineta...
18:30, Sarobe.

OSTIRALA 7

URNIETA Kontzertua
Lourdes Iriondo musika eskolako abeslariak eta Easo abesbatza
18:30, Sarobe.

ANDOAIN Antzerkia
"Ramon eta Julieta" antzezlan.
21:30, Bastero. Euskaraz.

LARUNBATA 8

ANDOAIN Kontzertua
Myriam Ulanga Elors Udal musika eskolako irakaslearen emanaldia.
12:00, Bastero. 3 euro.

ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
Lo dejo cuando quiera
Larunbata, 1:
19:30, 22:00.
Igandea, 2: 19:30.
Asti, 3: 19:30; 22:00.

Pokemon Pikachu detektibea
Ig, 2: 17:00.
Los hermanos Sister
Larunbata, 8:
19:30, 22:00.
Igandea, 9: 19:30.
Ast, 10: 19:30; 22:00.



SINOPSIA



Lo dejo cuando quiera
Zuz.: Carlos Therón. **Herr.:** Espainia (2019). **Generoa:** Komedia.
Hizkuntza: Gaztelania. **Aktoreak:** David Verdaguer, Ernesto Sevilla, Carlos Santos, Ernesto Alterio. **Iraupena:** 98 minutu.

Biharamunik gabeko gauak

Pedro, Arturo eta Eligio krisiak gogor kolpatutako hiru irakasle dira. Ahituta eta dirurik gabe,

biharamunik uzten ez duen formula bitaminikoa aurkitu dute.



Igande honetan dantzari ugari hurbilduko da Andoainera. AIURRI


Haurren Euskal jaialdia Andoainen

XXI. Haurren Euskal jaialdia ospatuko da igandean Andoaingo kaleetan zehar, Urki dantza taldeak antolatuta eta Andoaingo Udalaren laguntzarekin.

Goizez zein arratsalde, Euskal Herriko hainbat lekutatik heldutako musika zein dantza taldeek erakustaldiak eskainiko dituzte han eta hemen. Honako herrietatik etorriko dira: Arroniz, Leitza, Ordizia, Urkabustaitz, Ustaritz, Zarautz eta Zornotza. Jakina, Urkiko dantzariak ere bertan izango dira.

'Denok plazara' leloa darama aurtengo jaialdiak eta Naiara Lasarte eta Juanan Lazkano dira kartelaren egileak.

ZORION AGURRAK



URNIETA
Andoni Rosco Muñoz
Andonik 8 urte beteko ditu ekainaren 1ean. Zorionak morroxko! famili eta lagun partetik.



ANDOAIN
Aroa eta Libe
Aroak 6 eta Libek 4 urte beteko maiatzaren 29an eta ekainaren 8an. Muxu potoloak etxeko partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus
webgunea
"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus
Mezua eta argazkia bidali, herria zehaztuz.
Arantzibia 4-5, behea. Andoain
943 300 732.
Whatsappez:
619 16 35 37
Mezua eta argazkia bidali Aiurriko posta elektronikora herria zehaztuz.

Ehunka musu emanaz agurtu ziren pailazoak

"Musua" ikuskizuna eskaini zuten pailazoek Urnietako Egape ikastolako jolastoki estalian. 500 lagunetik gora hurbildu ziren, Pirritx pailazoaren berragerpenean. Saioa amaituta, dozenaka argazki eta ehunka musu banatu zituzten



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek jendetza erakarri zuten Urnietara, urtero egin ohi duten modura. AIURRI

Erredakzioa URNIETA
Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek urtaroei eskainitako ikuskizun magikoa eskaini zuten, hainbat animalia eta pertsonaia ezagunen parte hartzearekin. Besteak beste, Olentzerorekin. Aiurri astekariak antolatuta, ikuskizuna ikustera 500 lagunetik gora hurbildu ziren. Gehienak urnietarrak, baina baita hernaniarrak eta andoaindarrak ere. Aiurrik esker ona adierazi nahi die pailazoaren konpainiari, ikusleei, Egape ikastolari eta Urnietako Udalari.



Pailazoek inklusiorako duten jarrera txalagarria da. AIURRI

31

HAURREN
EUSKAL
JAIALDIA

Ekainak 2
Andoain, 2019

MUSIKAZUZENEAN

JAIALDI AKUSTIKOA

PAXKAL IRIGOYEN
BIRKIT · ABEREH · ANE
LARRA BIDEAK · RAITX
MONTAUK · SARA ZOZAYA
GARTXOT · ASIER BERAMENDI
NATALI · SERGE

Ekainak 02 IGANDEA

19:00

USURBIL

SARRERA 10€

Telefono zaharrak biltzeko kanpaina

Egape ikastola

URNIETA

InteRed GGKEk garatzen duen Jolas eta Ekin proiektuarekin bat eginik, eta herriko hainbat eragilerekin elkarlanean, ikasleek kanpaina bat jarri dute martxan.

DBH 3.mailako ikasleek Kongoren aldeko kanpaina bat abiaraziko dute, ahalik eta telefono mugikor gehien biltzeko. Modu horretan, Kongoko Errepublika Demokratikoko herritarren bizimodua hobetzea helburu duen Alboan GKErekin bat egingo dute.

Beste ekintza batzuen artean, Egapeko ikasleek herriko hainbat lekutan (Lekaion, HH-LH Ikastolan, DBHko eraikinean eta zehazteke dauden beste hainbat lekuetan ere) birziklatze-ontziak jarriko dituzte. Mugikorren birziklapenetik lortutako etekin ekonomikoa Kongoko gatazka armatuak eragin dituen errefuxiatuei eta sexu bortizkeria jasandako emakumeei laguntzeko proiektuak finantzatzeko erabiliko da.

Ekimen honen bidez, telefono mugikorren erabilera arduratsua bultzatu nahi dugu, birziklatzea sustatuz. Mugikorren osagaien %90 birziklagarria baita, eta mineralak erauzteko beharra txikitu daiteke beraz. Mugikorrak erabiltzeari uko egiteko asmorik eduki ez arren, eta gailu elektronikoek komunikazioaren gizartean ekartzen dizkiguten onurak alde batera utzi gabe, kanpainaren bidez mineral horiek baldintza duinetan erauztea eskatzen dugu. Giza eskubideak errespetatuz, material hori dala gerra finantzatzeko eta gatazka betikotzeko erabili.

Erakusketa Lekaion

Geure ikasleek, gainontzeko herritarrek bezala, etorkizuna hobetzeko badute zer esanik. Horregatik, ekainaren 3tik 10era bitarte, herriko hainbat tokitan mugikorrak jasotzeko edukiontziak jarriko dituzte. Gainera, asteen zehar eta goizez eta arratsalde, erakusketa zabalik izango da Lekaion.



Elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak eta sukaldariak, harrera ekitaldian. AIURRI



Zuena elkarteko dantza taldeak Andaluziako folklorea eskaini zuen. AIURRI



Hogar Extremeñoeko kide ugari bildu zen, harrera ekitaldian. AIURRI



Grazia askorekin dantzatu zuten Zuena elkarteko emakumeek. AIURRI

Extremadurako sustraiak

Hogar Extremeño kultur asteen murgilduta dabil, eta astebururako hitzordu gehiago deitu dituzte. Larunbatean bazkideek egun handia ospatu zuten, Udal ordezkariekin eta herriko beste hainbat elkartetako kideekin batera

Xabier Lasa ANDOAIN

Larunbat eguerdiko ekitaldi nagusian, elkarteko lehendakari Miguel Angel Martinezek hartu zuen hitza, esker ona adierazte-

ko. Era berean, andoaindar guztiei kultur asteen zehar antolatu diren ekitaldietan parte hartze-ko gonbitea luzatu zieten. Eki-taldi berean, nola ez, Extrema-

durako ereserkia abestu zuten: "Nuestras voces se alzan, nuestros cielos se llenan de banderas, de banderas verde, blanca y negra. Extremadura patria de glorias,

Extremadura suelo de historias, Extremadura tierra de encinas, Extremadura libre camina. El aire limpio, las aguas puras, cantemos todos: ¡Extremadura! Gritemos todos en libertad: ¡Extremadura tierra de paz! Nuestras... Extremadura alma, Extremadura tierra, Extremadura de vida llena, Nuestras...".

Bezperan, Urki, Zuena eta Donostiako Extremadurako dantza eta musika taldeek Bastero Kulturgunean ikuskizuna eskaini zuten.

Nazioarteko aniztasunaren eguna Etxeberri plazan

Nazioarteko Aniztasunaren Eguna dela eta, Urnietako Magale Ikastetxeak "Aniztasun Kolorea" izeneko ekimena martxan jarri zuen. Maiatzaren 21ean, DBHko lehen eta bigarren mailako ikasleek Etxeberri plazara hurbildu eta proiektuari lotuta egindako lanak eskaini zituzten.

Teknologiako arlokoek egindako eguzki sukaldeak eta eguzki

labeak ikusgai ipini zituzten. Gorputz hezkuntza, musika eta euskara arloetakoek dantza eta bertso saioak eskaini zituzten. Besteak beste, "Tarantella Napolitana", "Dashing white Sergeant" edo "Pitx" izenekoa.

Ikusleen artean eguneko zentruko aitona-amonak hurbildu zitzaizkien. Eguraldia lagun, antolatzaileak pozik daude.

